

Bizitzaren, bakearen eta berdintasunaren aldeko Agiria

FAOk adierazi berri duenez, munduan 35.000 haur gosez hiltzen da egunero. Ezer egin gabe egunero pairatzen dugun neurri gabeko genozidioa da. Une berean, munduan egiten den eguneroko gastu militarra 2.800 milioi dolarrekoa da eta Estatu Batuek zein Europar Batasunak beren nekazaritza babesteko egunero zuzentzen duen dirutza 800 milioikoa da. Ez omen dago HIESaren aurkako bitartekoak ikertzeko... baina gerrarako industria militarrek osaturiko sarea da munduan ekonomia neurri handi batean zuzentzen duena. Premiazkoa da justizian oinarrituriko banaketa egitea. Bazterketa eta laidoa, oldarkortasuna, gorrotoa eta erradikalizazioa bultzatzeko biderik eraginkorrenak. Bortxakeria justifika ezina da, baina oinarrian dituen egoerak tentuz aztertu behar dira.

Guztionez onuragarria izango litzatekeen garapen orokorrerako plangintza bideratzeko Nazio Batuek behar dituzten bitartekoak eta autoritatea indartu beharrean, alde anitzeko ekin bidea bultzatu beharrean, gero eta txiroagoak diren herrien natur baliabideen ustiapen basatiari eusten zaio, bertako herritarren migrazioa bultzatuz eta berauen duintasunaren zapuzteari ateak irekiz. Benetako demokrazia ez da erositako botoen bidez, agintearen jarraipen itsuz edota beldurrez eraikitzen dola indartzen. Bortxakeriaren zurrumbiloa, eraso eta erantzuna, esku hartzea eta zampaketa besterik sortzen ez duten lapurketarako gerrekin, indar erakustaldiekin, gudu ekintzekin edota energia zein ekonomiaren interesek zuzendutako politikekin, ezin dakieke munduak bizi dituen erronka handiei eta maila guztietako egoera asimetrikoei aurre egin.

Agintariek beraien ardura politikoak aspaldian baztertu zituzten, balore unibertsalen ordezkari merkatu legea hautatuz. Ondorioa argia da, aberastasuna esku gutxitan metatu den bitartean, etendura soziala eta ekonomia indartu dira bazter guztietan.

POBREZIARI EZ! Mundu mailako aldarrikapenaren bidez, Milurteko Helburuak betetzeari lehentasuna eman diezaioten eskatu behar zaie agintariei. Etsipena baztertzeko unea iritsi da, norbanakoaren inplikazioaren garaian gaude.

Berriz ere adierazi nahi dugu atentatuak eta bortxakeria ez ditugula justifikatzen, datozen tokitik datozelarik... Mota guztietako terrorismoa arbuiatzen dugu: sasia ezkutatu diren taldeena eta Estatu Terrorismoarena. Tortura erabili da, tratu txar eta iraingarriak zabaldu dira, nazioarteko zuzenbidea eta giza eskubideak zapuztuz.

Nazioarteko Komunitateak amaiera eman behar dio basakeria horri, sarraskiei. Nazio Batuetako Gutunak dioten bezalaxe, herriak dira bere etorkizuna erabaki behar dutenak. Premiazkoa da munduko herri guztien ahotsa elkartzeko eta ozenki adieraztea: **NAHIKOA DA! GERRA ETA BORTXAKERIARI EZ.**

Gehiegitan geratu izan gara isilik. Bukatu da isilunea. Herriek beren ahotsa indartuko dute. Gerra guztionez tragedia da. Premiazkoa da armen arrazoa desegitea. Gaur, inoiz baino gehiago, elkarlanerako eta elkarrizketarako gaitasuna dira beharrezkoak, ezinbestekoa da gatazkei konponbide baketsua

bilatzeko ahalegina egitea, besteekiko begirunea eta elkar ulertzea bultzatzen duten jarrerak indartzea, besteak beste, Giza Eskubideak egunero bideratuz.

Herrien arteko elkartasuna garatuz eta guztion arteko ekimen bateratuak jorratuz, gertakarien norabidea aldatzea beharrezkoa da. Premiazkoa da intelektualek, artistek, hezitzaileek, zientzilariek... beren pasibotasuna alde batera utzi eta ekintzara jotzea. Hori izango da beren idazkiek eta hitzek sinesgarritasuna berreskura dezaten bide bakarra eta, bide batez, beraien ahaleginak besteekin elkartzeko modua gerraren, konfrontazioaren eta erokeriaren aurka.

Pertsonen garaia iritsi da. Eta, batez ere, gazteena, bestelako mundu bat bideragarria dela pentsatzen duten gizon eta emakumeena. Instituzioek eta hedabideek munduko jendarte lagundu behar dute, behingoz, ikusle izateari utzi eta benetako protagonistak bilaka daitezen etorkizuna finkatzeko unean. Agintariek, legebiltzarkideek, Udalbatzek... guztiek dute ardura berezia aldaketa historiko horretan.

Kultura eta erlijio ezberdinen ordua ere iritsi da, guztien oinarrian dagoen urkoarekiko maitasuna eta elkartasunean bat eginik, giza duintasunaren berreskurapenaren aldeko borrokan aintzindari izan daitezen.

Ezinbestekoa da herriek, mobilizazioak bideratuz, jendarte, kultura, politika eta izpiritu mailako erresistentzia garatzea, bortxakeriaren eta justizia ezarekin eskutik ez joatea, menperatzaileak eta gizateriak munduan bizi duen egoera salatzea.

Zutik jarri behar dugu, bakearen alde zutik eta bizitzaren ostertz berrietara abiatu, heriotzaren garamatzaten norabideak baztertuz. Arazoak arazo, hori da esperantza bakarra.

Esandakoarengatik, eta begirada belaunaldi berrietan jarriz, dei bat luzatzen diegu borroka honetan kide sentitzen diren guztiei, modu baketsuan mobiliza daitezen, esku artean dituzten bitarteko guztiak erabiliz, zuzenekoak zein birtualak, parte hartuz, bakearen alde bat eginez.

GERRA ETA BORTXAKERIARI EZ JUSTIZIA ETA BAKEARI BAI

2006ko abenduaren 10ean eta 11n, Giza Eskubideen Aldarrikapenaren urteurrena ospatzeko, 24 orduz horren aldeko aldarria zabalduko dugu mundu osoan, gure ahotsaren eta hedabideen bidez.

Pixkana-pixkana aurrerapen nabarmenak lortzen baditugu, "mundu osoak kontzientzia hartzea" lortuko dugu; hots, herrien benetako independentzia lortuko dugu.

Lehen atxikipenak